

JUAN SAN MARTÍN

**ARTEAK, EUSKAL HERRIAN**

**A**rte Plastikoekiko euskal jokaerak, Europako mendebaldeko herri gehienetakoen antzera, nazioarteko korronteen arabera jokatu zuen Ertarotik hasita eta, horren ondorioz, ez da gure asmoa inolako behin-betiko orijinaltasunik aurkitzea gure arte-sorketa autoktonoari dagozkionetan. Horretarako, historiaurreko aldiak jo beharko genuke eta, zehazki, Goi-Paleolitikoko horma-margoak aztertu beharko genituzke, ildo honetan zerbait aurkitu ahal izateko. Gainera, bestalde, aldi horiek eta gaurregungo euskal gizakia lotzea, oso zaila izango litzatezake.

Bide zuzenari heldu ahal izateko, mendebaldeko korrontek ezagutzea izango zaigula onuragarriena uste dut aldi eta estilo ezberdinak kontutan hartuz eta, bigarren, euskaldunek, mendeetan zehar, gauzatu dituzten arte-interpretazioak, asimilazioa eta aportazioa aztertzea.

## **PREHISTORIA ETA PROTOHISTORIA**

Arkeologoek «Cultura Franco-Cántabra» izenez ezagutzen duten lurraldearen ardatz-ardatzean dago kokatuta Euskal Herria eta aipatu dugun lurralde horretan sortu dira hain zuzen gizakiak sortu dituen lehenengo arte manifestazioak, gorenko mailakoak haitzuloetako horma-margoak direlarik. Euskal lurraldean, Etxeberri, Sasixiloa, Altxerri, Ekain, Santimamiñe, Arenaza,... izeneko haitzuloetan, margo oso nabarmenak ditugu benetan, Xuberoan (Suole) hasi eta Bizkaia barne. Horietan azpimarragarrienak, Urola arroan dauden Ekaingo haitzulokoak dira, zaldi-margo ugari ikus daitezkeela eta Lascaux-koekin konparagarri direnak hain zuzen.

Isturitzen (Isturits, Behe-Nafarroa) Otsozelaikoak daude jendearentzako ikusgai, barnean grabaketa bat gordetzen dela eta sarreran museo txiki bat antolatu dutela harrizko eta hezurrezko tresna batzuk erakusteko xedez. Bizkaiko Kortezubiko Santimamiñe ere ikusketarako gertatuta dago.

Neolitiko eta Eneolitiko aldietan zehar, «cultura pirenaica» delakoa Ebro eta Garonaren arteko eskualdean kokatzen da, Pirineoak ardatz nagusi direla Catalunyako lurretaraino sartu arte. Aldi horietan, monumentu megalitikoak, trikuharriak eta hilobiak eraikitzen dituzte, hainbat tresna bitxi aurkitu direla berotzetan. Arabako lautadan aurkitutakoak dira nabarmenenak handitasuna kontutan hartzen baldin bada, adibidez, Egilazko Aizkomendi eta Arrizalako Sorginetxeta; Hegoaldean, berriz, Laguardiako San Martin eta Elvillarko Sorgintsaren Etxea. Aldi honen azken urteetan, keramikazko untxiak azaltzen dira.

Aurkikuntzaren gai izan diren hainbat eta hainbat kromlechs Metale Arokoak dira eta Frantzia eta Espainiaren gaurregungo mugen goi-aldeetan eraiki zituzten, mugaren mendebalde muturrean gainera.

Eneolitiko aldiko tresnen artean, brontzez egindako gai-luak ikus ditzakegu eta bai kanpaniforme erako keramikazkoak ere. Hala ere, Brontze-Aroa ez da hasiko K.a. 1.200. urtea arte.

Burdin-Aroan Keltak sartuko dira, kultura ezberdinak indar berria hartzen dutela, nahasten direla, giza eta kultura mailako bizimodu konplexu bat sortzen dela eta, arkeologiak, bestalde, behar hainbat dato ez dituela eskuratu, bertakoek, kultura berri hori zenbateraino berenganatu zuten

neurtzeko eta zehaztasunez azaltzeko. Honek zera dakar, hau da, ezin daitekeela zenbatu eta baloratu autokronotasuna zenbaterainokoa den arte plastikoetan. Jendetza berri honek Euskal Herriko hegoaldean izan zuen eraginik handiena Ebro ibaiaren ibarretik zehar, lurralde osoan eragina izan zuela ukaezinezkoa baldin bada ere, honen lekuko Gipuzkoako Bolibarren urrezko untziak direla, Hallstat garaiak hain zuzen. Azkenaldi honetan Arabako La Hoyan gauzatzen ari diren indusketek ezinbesteko materialeak eskuratuko dizkigute aldi ilun honetako hainbat puntu interpretatu eta argitu ahal izateko.

Erromatarrek, Calagurris (Calahorra) aukeratu zuten Vascoien hiriburutzat, elkarren arteko etnia-hizkuntza mailako kidetasuna zuten heroi, bardulo, karistio eta autrigoitribuen gain eragina izan zutela. Erromatarrek, bideak egin eta herriak antolatu zituzten beren gudarosteentzako eta meatze hustiaketatarako. Berbera gertatu zen Pirineoetako ifar-hegaletan, hots, galoak zapaldu zituztela eta Akitaniaz, Gaskuñaz eta Frantziako gaurregungo Euskal Herriaz jabetu zirela. Baina ez ziren izango horiek, lehenengo arkitekturamanifestazioak, ez bait da ahaztu behar badaudela lehenagoko herri eta kastroak, adibidez, lehen aipatu dugun La Hoyakoa, Nabarnizen, Aldaban, Lastran, Argedasen, Olarizun eta beste hainbat lekutan.

Artzai-Aroak, milaka urteetan iraun zuen abelzaintzazko ekonomia gisa, Pirineoen bi aldeetako harahonakoaz eta Ebro, Garona eta Kantauriko Mendikatean zehar ibilbide finkoak egiten zituztela eta, aldi berean, keltiberikoen eta erromatarren herri garrantzizkoak bizi-bizian baldin bazeuden ere. Hauen eraginez, gaurregunarte iraun dute hizkuntza-isoglosa nabariak kultura-harremanen lekuko gisa.

Betiko bizimoduak, lur honetan, indar handia zuela eman zen Erromatarren Inperioaren desagerketa eta betidaniko ohiturak berpiztu egin ziren latinaren hedaketa geldiaraziz nolabait; hor dugu lekuko Iruña, Pompaelo (Pamplona). Aintzin-Aroa eta bai Behe-Ertaroa ere isilpean gelditzen zaizkigu, ez digute ezer berezirik eskaintzen Ertaroak oso aurrera egin zuen arte.

Burdina, ugaria zen lur honetan eta, nolabait lantzen zuten, horretarako ziren gune garaietan antolatzen zituzten haizeolak, erromatarrek ekarritako aurrerapen teknikoak bertaratu zituztela. Hala ere, oso berandu jasotzen ditugu haizeolei buruzko idatzizko albisteak, hara nola, Arronciok IX. mendean egindako emanketaren bidez eta 1025.era arte, hau da, «reja de hierro» delakoa, zerga gisa, Cogollako San Millango Monastegiari ordaintzen zioteneko Arabako herrien zerrenda euskuratzean alegia.

Kristau-fedearen lehenengo lekukoak berezko eta gizakiek egindako haitzuloetan topatzen ditugu, Araba eta Nafarroakoetan batipat; jakina denez, zenobio eta monastegietako bizimodua antolatu baino lehen eta, dirudienez, Toledon jadanik beren bizimodua eratuta zuten arrianoen instituzio mailako arauz aparte eta horiekiko inolako loturarik gabe. Arrianoekin haserreak ere izan zituzten. Hala eta guztiz ere, kristauak baziren hemen Erromatarren Inperioa desagertu aurreko azken urteetarako, horren berri Calahorrako martiriek ematen digute argi eta garbi. Bestalde, Bizkaiko Morgan hilarriek, Foruko pieza arkeologikoez, Irungo Oarso lurraldean kokatuta dagoen Santa Elenaren debotiozko ermitan egin diren aurkikuntzek, bide horretan jaritzen gaituzte. Baina kristautasunaren benetako hedaketa, herri mailan, VIII. eta IX. mendeetan eman zela onartu beharra dago.

Erromatarren Inperioa ezabatu ondoren gauzatzen den gertakaririk nabariena, kultura akitaniarraren sorrera da, Burdigalan (Bordele) hiriburua zuela, Gaskuña osoa hartzen zuen Novempopulania izeneko herria zela indartsuena eta baskoien lurralde osoaren gain izugarritzko eragina zuelarik. Garai honetakoak dira epigrafiadun herriak, kulto eta euskal jainkoen izenak eta euskarazko hitz batzuk ezagutzeko bidea zabaldu digutenak hain zuzen.

## ERROMANIKOA

Bisigodo eta karolinjioen eraginaren aztarnak aztertzea, alferrikakoa da, ez bait du inolako garrantzirik. Apenas dagoen arte prerromanikorik. Nafarroako Erresuma ezartzeak, eliza handiak eraikitzea eta monastegiak eratzea ekarri zituen, ondorioz, arte romaniko garbi-garbia sortzen delarik. Ildo honetan, ez da ahaztekoa, Santxo III.-ak, Handienak, Clunykoko monjeak ekarri zituela San Juan de la Peñara monastegien erreformari ekin ziezaioten eta, geroago, Santxo Ramirezek Leyrera etor zitezela egin zuela. Gogoan hartu behar bait da honako hau, hots, Santxo III.-ak hasita, honen semeek, beste eliza handi batzuk Euskal Herriz kanpo eraiki zitezela bultzatu zutela, adibidez, Palenciako San Antolin, Jakako katedrala, Fromistako San Martin eta Leongo San Isidoro izeneko elizak beste batzurekin batera.

Arkitektura mota honen garapenean, ezinbesteko eragina izan zuen Santiagorako Bideak. Aipatutako nafar Errege horrek, Españako ifarraldetik arabeak bota zituen, mesetatik zehar Santiagorako bidea egin ahal izateko eta Kantabria-Mendikateko bide arriskutsuak bidariak igaro beharrik izan ez zezaten. Honela ere eta bide nagusiaz aparte, bide-ada-

rrak ere baziren. Bide nagusia, Somport eta Jakatik zetorrenaz gain, Izurara (Ostabat) heltzen zena zen, Donibane Garaiz (Saint-Jean-Pied-de-Port) igaro, Ibañeta lepoa burutu eta, Orreagatik zehar, Jakatik zetorrenarekin Garesen (Puente la Reina) batzen zena hain zuzen.

Nafarroan eta Araban daude Euskal Herriko monumentu romanikorik handienak eta aberatsenak. Azpimarragarriak dira Leyrekoaren alde zaharrak, absidea eta kripta (hau da, elizburua eta elizpea) eta atariko ikonografia. Lizarrako Ruako San Pedrokoaren arkitektura, benetan harrigarria da, hiru nabekoa, tanbor erako absidea eta kalostrea. Garrantzizkoa da, baita ere, hiri bereko San Migel elizaren ifarraldeko atea ikonografiari dagozkionetan. Lizarran dago Nafarroako Santxo VI.a bizi izan zeneko jauregi romanikoa, arkitektura zibileko obra bitxia bere arte-estiloaren eremu barruan.

Zangotzako Santa Maria la Real izeneko elizak, bere arkiteturaz aparte, oso ongi landutako portada du: Estatuadun pilareak, tinpanoa apostolu eta guzti, pantokratorra azkenjuizioa gogora-eraziz, arkiboltak eta fatxada, hainbat rito, mito, ohitura eta ofizioen representazioak dituztelarik.

Eliza txikiak ugari dira, Abrisketako San Pedro Arrigorriagan, eta Bakioko San Migel eta San Pelaio bakarrik topatuko ditugula Bizkaian. Ate, leiho, moldura, ponte, kapitel eta irudiak, aunitz daude Bizkaian, Gipuzkoan eta Lapurdin (Labourd), azken hauek romaniko ageri guti izanarren. Hala ere, eliza txikiak, oso ugariak dira Araban, Nafarroan eta Xuberoan batipat. Beste batzuren artean aipagarria da Araban Tuestako atea, dituen eskulturgatik, txistuaren antzeko musikagailu bat ikus daitekeela irudi batetan eta, aldi berean, kaxa jotzen duela gaurko modura; baina hau baino lehenagokoa izango da Santa-Graziko (Zuberoa) kapiteltako ikonografian azaltzen den beste irudi bat, fertilitate-sinboloak nabarmentzen direla bertan. Gai hau berai ikus daiteke argi eta garbi Artaizko kaneziloetan, bizitzaren sortzeari buruzko representazio grafikoak liturgiako ritoekin nahasten direla. Antzeko gaiak ikus ditzakegu Etxanoko elizan Oloritzen, folklore eta guzti, musikari elbarri eta kalesaltinbankiekin batera.

Eraikintza bitxiak dira oktagonoko erako elizak, abidibez, Eunateko Santa Maria izenekoak, Muruzabalen, inguruan klaustroa duela eta bai Torres del Riokoa ere. Ez da hain handia, baina antzekoa da Ospitale-piako San Bladi (Hôpital-Saint-Blaise) kapera izan zena, Xuberoan.

Romaniko bideen artean interesgarrienetariko eta ezezagunenetariko bat Xuberoakoa izan daiteke bailara baten barruan, Ospitale-piako elizan hasi eta Santa-Grazin amaiera izango lukeela, erromes ospitaleko kapera izan zen eta Arrakogoitiko mendatearen behe-aldean kokatuta dagoen eta XI. mendekoa den eliza bikaina bertan ikusiz. Maulen eman hasera bideari Arballarantz (Pettarra edo Basse Soule), hiru nabeko burualdea eta tanbor erako absidedun eliza ikuskatu Urdiñarben (Ordinarp); Ibar-Esküin (Val Dextre) ibarrean sartu eta paisaia zoragarria dastatuz Zihigaraino (Cihigue) heldu; Ozázen (Ossas) eta Gaméren (Camou), ateburruetan krismoidun eta kañoi erako bobedadun eliza txiki eta menditarak ikusi ahal izango ditugula; Zihigatik Basabüriara (Haute-Soule) eta hemendik Ibar-Exkerrea (Val Senestre) Ligin (Licq). Kilometro batzuetako atzerakada egin eta aipatutakoen antzeko zermolakoak dituzten elizak aurkituko ditugu Liginagan (Laguinge) eta Hauzen (Haux) Santa-Grazitik gertu; hemen ibar garai horrek zabalera handiagoa hartzen duela eta lehen aipatu dugun eliza romanikoa bertan dagoela, Santxo III.ak, Handiaren denboretan eraiki zirenetakoa hain zuzen.

Baina bide romanikoen aipamena egitean, behar-beharrezkoa da Valdorba (Valle de Orba) gogora ekartzea, hemen bait daude romaniko estilodun eraikintzarik ugarien. Ez ahastu, oso gertu, ifarralderantz, Oloriz izena duen herrira dagoela eta hemen Etxanoko San Pedro eliza. Valdorbarako atari gisa Katalaingo Santo Kristoa dugu, Garinoaingo udalerrira dela horren jabea. Ibarrek, hasera-haseran, Eristain du ifarraldera eta Orisoain hegoaldera, errepide nagusiaren bi aldetara. Bideari amaiera emateko, Iratxetako garaia bisita daiteke, ibarraren bukaeran bait dago. Romaniko estiloko garaiak aztertu nahi izanez gero, gogotan hartzekoa da Santa Fe (Urraul Buru) izenekoak, XIII. mendeko Kalostredun Santutegiaren barruan dagoela kokatuta hain zuzen.

Esandakoak esan, biderik nagusia honako hau izan daiteke, hau da, Zangotzan hasi eta Aibarretik zehar Santiagorako bide nagusia Garesen elkartzen dena izan daiteke, romaniko eliza txiki bezain bitxiaren jabe den Olleta Valdorbak Hegoaldean kokatzen da eta herritxo hortatik bada irtera, nahia Puyora edo nahiz Garinoainera iristeko. Baina Olletara heldu baino lehen, Dona martiri-Utzeko bidea har daiteke Lergan, eliza honek, arkitektura mailako balioaz aparte eta elizpe interesgarri bat izateaz gain, bataio-ponte bikain bat du bere barnean. Gertu, Usua daukagu, XIV. mendeko gaztelu baten barruan eliza romanikoa duela eta Nafarroako romaniko estilodun Ama Birjinarik politena. Zurezko tailua, zidar errepujatuz jantzia. Oliteko San Pedro eliza izan daiteke beste puntu ikusgarri bat. Kristo roma-

niko bat duen Pitillas izeneko herrira jotzen badugu, Olivako Monastegira joan gaitzke. Zangoza eta Gares arteko puntu garrantzikoena den Garinoain utzi gabe, Iruñearuntz jo eta berehala ibaiaren eskualdean dagoen eta San Millan izeneko portada bikaina duen Untzue alde batera utziz, Campanasera iritsiko gara; gero eskubiari heldu eta, Eneriztik zehar Eunateko Santa Maria monumentuaren albotik igaroz, Garesera (Puente la Reina) helduko gara. Arga ibaiaren gaineko zubia eta Santiago izenez ezagutzen den atea dira ikusgarri nabarmenenak. Erromesen bide historikoetatik ibiltzea obligaziozkoa da, abibidez, Mañeru eta Gesalaz izenekoetatik, Lizarran ibilaldiari amaiera emateko, Iratxe eta Irantzuko Monastegiak bisitatu hiri honen gertuan, gotikorako arkitekturarako transizio bidea eskaintzen digutenez Monastegi horiek.

Ibilaldiari Araban zehar jarraipena ematea zailagoa da, monumentuak oso sakabanatuak bait daude. Hala ere, interesgarria da Arabako lautada ezagutzea, Nafarroako Burunda aldetik hasi Burdeostik Astorgarako kalezada romanoaren bi aldeak osatzen zituzten eskualdeak ezagutuz. Bide honetan, honako hauek dira ezagutu beharrekoak Arabako romanikoaren berri izateko, hau da, San Millango San Roman, bere ate eta bataio-pontez; Gazeoko eliza, mural gotikoak dituela eta Ezkeretxako elizatik gertu. Bide honetan, honako hauek ikusiko ditugu paraleloki, ifarraldera, Amamioko San Juan ermita Araian eta Aistrako San Julian Zalduendon, biak dituzte alde prerromanikoak; Hegoaldera, bidetik nahiko urrun, Okariz dago bere parrokiako ate romanikoaz, nahiko zaharkildua tamalez, eta, bere barnean, Andra Mariaren irudi gotiko bat duela eta Euskal Herriko Ama Birjinen modelutzat har daitekeena gainera. San Migelen deboiziozko ermitan, harri romanikoak daude horman sartuta.

Lizarratik Gasteizerako bideak ez du interes handirik, alboetara jo beharko genukeela arte-estilo honi buruzko zer-bait interesgarria ikusi ahal izateko. Kontrastako Elizmendi ermita datorkigu burura, harri romanoak dituela eta, berez, nahiko modelu romaniko egokia dela. Beste ermita batzuk ere badira bide honetan, adibidez, Ullibarri Aranako Andra Mariaren ohorezkoa eta Atauriko Soledade izenekoa. Bidebidean, Okinako elizako portada. Gasteizera gerturatzean, ez dugu ahaztu behar Estibalizko Santutegia, kurutze latinozko solairudun arkitekturaz, tanbor erako elizatze hirukoitzaz eta hegoaldeko atearen apaingarri bitxiak. Eta Gasteizen bertan, Armentziako San Prudentzioren ohorezko eliza, atariko erliebeak nabaritzen direla, bere arkitekturaren egitura orokorra eta bere tetramorfo bitxia kontutan hartzekoak direla, mensuletan ebangelistak indarra eginez kruzetako sabaiari eusten diotela.

Eskulturari dagozkionetan, Andra Mariak dira nabarmenenak (Ama Birjinaren irudiak), eliz-aldareetako burutza egiten dutelarik. Irudi multzo ugaria, geografia osoan zehar hedatzen dena eta gotiko-aldian gehitzen doana. Eserita daude Haurra altzoan dutela, zurez tailatutakoak dira, harriz egindakoak ere badaude han-hemen eta zilarrez hornitutakoak ere ikus daitezke Nafarroan. Tailer edo eskola bakoitzak zituen nabardurak nabarmentzen dira gehienetan, estiloaren arabera bereiztu daitezkeela.

Arte suntuario edo aplikatuei dagozkionetan, Iruñean aritu ziren esmalte-tailerrak, Aralarko San Migel Elizako altare-aurrea bereoneratzea zela eta, madame Gauthier-ek egindako ikerketek zabaltzen dituzten bideek ematen dituzten urratsen arabera, kontutan hartzekoak dira orfebre esmaltatzaileen tailer gisa eta Santiagora bideko aldi nagusi zirenez tailer horiek. Hona hemen adibide batzuk: Artajonako Jerusalemko Ama Birjina, Fiteroko arketa, Galarko Ezpartzan pisidea eta Elizabarrutiko Museoan dauden beste zilargintza-pieza batzuk. Urrez eta esmaltez hornitutako Lizarrako San Pedroko kobrezko bakulua ez da aurkitzen hemen tamalez. Egiliorko arkanjelu-retabloaren ikusmina ere sentitzen dugu, romaniko-estiloko horma-margo bakarra bait da bera, Barcelonako Museoan dago gaurregun.

## GOTIKOA

Ez dago zalantzan jartzerik Nafarroako Erregek Frantziakoekin izan zuten abaidetasunak eragina izan zuela hemengo gotikoan, Nafarroak Normandian zituen aberastasunez gainera gure itsas-portuz baliatuz Europarekin egiten zen merkataritza ugaria bait zen.

Transizioa aztertu ahal izateko, Irantz, Iratxe eta La Olivako Monastegiak zaizkigu benetan interesgarri Nafarroan eta hainbat eta hainbat parrokia Araban.

Euskal Herriko gotikoaren funtsezko obrak Iruñeako eta Baionako katedralak dira eta, ez hain garrantziko, Gasteizko katedral zaharra. Lehenengoa, antzinako eliza gotiko baten gainean eta erromatarrek eraturako herri batetan eraiki zen. Lehenengo elizaren kapitela batzuk Museoan gordeta daude. Gaurregunoari XIII. mendearen azken urteetan eman zitzaion hasera eta, gorabehera ugari jasan ondoren, XV. mendearen azken egunetan jo zen amaitutzat; baina ez zen horrela gertatu fatxadari dagokionean, Ventura Rodríguez Jaunak gidaturako obra neoklasiko bat da eta, estiloak ezberdinak direnez, nahaspila sortu eta balioa kentzen dio monumentoaren osotasunari dagozkionean.

1441. urtean Johan Lome Jauna zen maisu nagusia eta hargin-zerrenda ere ezagutzen dugu, gehienak euskaldunak zirela. Kalostrearen eraiketa zela eta, Espānako beste monumentu batzutan eragina izan zuen eskola bat sortu zela, dio Iñiguez Almech Jaunak.

Baionakoari 1258. urtean eman zitzaion hasera eta XIV. mendean egin zen gainontzekoa. Iruñeakoak eta Baionakoak antza dutela esaten du Lambert Jaunak, baina Baionakoaren estilo arauak ingelesak dira oso-osoan. Gogoan hartu behar da, garai honetan, Ingalaterrako Erregeak ahaideak zituela Frantzian, adibidez, Enrike II.-arekin Plantagenets dinastiakoa hain zuzen. Bobedako giltzarrietan Ingalaterrako koroaren ezkudoak eta hiru panterak ikus daitezke, hauek, gero, gaskoinen ezkudoan sartu zirela. Dorre bikoteak aurreko mendean eraiki ziren.

Frantziako Islaren eragin garbi-garbia duen gotiko-estilokoa, Orreagako Kolegiata da; adibidez, dituen triforioak, zutoietako kapitelak eta egitura osoa, esandakoaren lekuko dira. 1290.ean eman zitzaion hasera 1090. urte aldera omen zegoen beste bat oinarritzat hartuz.

Santa Maria, Gasteizko katedral zaharra hain zuzen, XIV. mendeko bigarren berrogeita hamarraldian eraiki zen. Hiru atedun ataria du, franko-nafar estiloaren eragina duten santu eta profeta-irudiz hornitua, Santo Tomasen, Ama Birjinaren, adibidez, Lohartze eta Zerura Eramatearen eskenak ikus daitezkeela eta bai azken-juizioari buruzkoa ere. Barneak, gurutze latinozko solairua du, hiru nabe eta altuera ezberdinetakoak. Triforio bikaina eta apaingari ugariz hornitutako kapitelak kruzero ondoan dagoen pilare batekoak izan ezik (Epistola aldekoan), zezen-eskena bitxiak ikus daitezkeela honetan.

San Pedroren ohorezko parrokiak dugu hiri berean, nobleziako pertsonaien ehorzketak ikus ditzakegula beren armari eta guzti. Eliza honek duen alderik garrantzikoena portikoa da, bere parteluzean Ama Birjinaren irudi bikain bat duela eta Kristoren eta santu titullarraren bizitzako eskenak bere tinpanoan. Elizak bere burualdean duen atearen egoera, hiriko lehengo harresiak beharturiko forma bat dela dirudi.

Gotiko estilodun beste eliza batzuk ere baditugu hiri honetan, hara nola, San Migel eta San Bizenteren ohorez eraikitakoak. Lehenengoaren aurrean, hiriko zaindaria den Ama Birjina Zuriaren irudia, hornazina batetan sartuta.

Itsas-merkataritzaren garapenak eta haizez mugitutako burdinolak urez higitutakoez ordezkatzek, hiri-nukleo txikiak handiagotzea eta hiribilduak eratzea ekarri zuten eta hiri horietako parrokiak eraikitzean handitasuna kontutan hartu beharra sortu zuten. Adibidez, 1340. eta 1350. urtetan eraiki zen Arrasateko San Juan Bautista parrokiak da Gipuzkoako gotiko estilodun lehenengo eliza handia, egituraz Gasteizko San Pedrokoaren antzekoa da, apalagoa baldin bada ere, hura baino lehenagokoa. Hiru nabe ditu, kruzeroa, poligono erako absideak eta kapera absidalak kruzeroan. Nabe nagusian alboko arkuak, bobeden indarrari eutsi ahal izateko.

Arrasate, meatzek izateaz aparte, Gasteiztik itsasorako erdibidean zegoen kokatuta. Itsasorako bide honetan badaude arte-obra aipagarriak, hau da, lehen eliza gotikoa kokatuta egon eta gaur hilerrria den Elgoibarko San Bartolome Olasoko atea; Astigarribiako San Andres Eliza prerromaniko horma gordez bere XI. mendeko albisteak eskaintzen dituela eta Debako parrokiako portada gotiko zoragarria, Biasteriko Santa Maria la Real izeneko elizaren portada gogorazten diguna.

Bilbok ere baditu garai honetako hainbat monumentu. Horien artean, honako hau da aipagarri, hots, XIV. mendeko Jaundone Santiago izeneko katedrala, saloi-solairuz, hiru habetartez, jiroa-kurutzatuz eta poligono erako kapera asimetrikoz hornitua; sabai kurutzatuak eta XV. mendean apaingari ugariko kalostre gotikoa erantsi zitzaion. San Anton izeneko eliza ere gogoan hartzekoa da, Bizkaiko hiriburu entseinan bere irudia sartu zela. Bere egitura, gotikoa da, ez du balio handirik eta portada renazentista.

Jaurreri lurraldearen barnealdean, honako hauek dira aipagarri, hau da, Urduña eta Balmasedako elizak eta Ziortzako Kolegiata, kalostre renazentista duela honek. Galdakaoko Andra Mari izeneko eliza ere kontutan hartu beharrekoa da, azkenaldiko romaniko estilokoa eta XIV. eta XVI. mendeetan handiagotu egin zuten gotiko-egiturei jarraituz. XVI. mendeko lehenaldian egin zen retablo nagusia eredu bat da, akulturizazio edo herri irudigintzari egokitzeari dagozkionetan.

Itsasaldeko herrietako elizen azterketari jarraituz, honako hauek aipatuko genituzke: Portugaletekoa, gotikoa; Plentziakoa, erliebedun panel batzuk dituela, lehenagoko altarekoak hain zuzen; Bermeokoa, hemen Santa Eufemiaren ohorezko eliza eta frantziskotarren kalostrea kontserbatzen direla 1504. eko sutearen ondoren; Lekeitiokoa, monumenturik aberatsenetarikoa, retablo nagusiz eta Kalbarioa repre-

sentatzen duen beste batez hornitua; Ondarrukoak, Zumaiakoak eta Getarikoak osa dezakete aipaketa luze hau lehen aztertu dugun Debakoa alde batera utzi gabe; Donostiako San Bizente, XV. mendeko azken urte eta XVI.aren lehen urteetan eraikitakoa; Hondarribiakoa, Isabelino estiloaren eragina duen apaingarri ugariko gotiko estilokoa.

Garai honetan, naturalezak berak ezartzen dituen eta erakundeetako norabideez aparte, beste era bateko aldaketak ematen dira. Euskal Herriak, geografia bera dela eta, Klima oso ezberdinak ditu, hau da, Ebroren ibarra alde batefik, Kantabria hegala, Pirineoetako ibar garaiak eta mendebaldeko depresioa bestetik, Horiek eragin nabaria dute noski eraikitza moduetan. Bestalde, elizbarruti banaketari dagozkionetan (Iruñea, Kalahorra, Baiona), norabide nagusiak biltze eta ezartze lana egin eta gune hegemoniko bat zen Nafarroako Erresuma galtzeak, hegemonia hori indargabetea dakar eta, ondorioz, nolabaiteko erizpide-sakabanaketa ekartzen du. Behar bada, onuragarri, estilo bakoitzaren barruan, aunitzasuna sortzen delako. Baina zera da egia, orohar ez zaiola eutsiko Ertaroko monumentuek zuten goi mailari. Bestalde, Europako mendebaldeko Ernazimenduruntiz, Pizkundera doa era guztietako aldaketak sortuz, ekonomia indartuz, bizimolde berriak erakarriz eta ohizko bizimodua aldatuz.

Ihar-Ekialdeko elizek, Baionako Elizbarrutikoek, horma oso garaiak, espadaina eta kanpantorre-frontoidunak dituzte. Adibidez, Arbonakoak, Bidartekoak, Halsukoak, Milafrangakoak, Makekoak, Iholdikoak, Ibarrekoak, Ahetzekoak eta abarretakoak. Era honetakoak dira, bai erdialde eta bai kostaldekoak ere. Xuberoko batzuk are bitxiagoak dira, Pirineo aldeko teilatu gailur zorrotzez eta tridente-espadainaz edo espadaina hirukoitzez hortituak eta trinitate-eliza izenez ezagutzen direla. Adibideak, Maulekoa, gazteluaren ondoan; Urrüxtoi (Arrast), Sarrikota-pia (Charrite-de-bes), Undüréiñe, Oníze (Abense), Bildóze, Mithikile (Moncayolle), Gotáñez, Zalgize, Altharrátze, Idáuze, Mendi eta Alzürükü-koak. Lehen deskribatu ditugun romaniko estiloko elizak, gotiko estilokoekin batuz, txango liluragarri bat egin daiteke.

Taldeen arteko gudateak zirela eta, 1448. urtean Arrasate-ren erreketan ondorioz eta hirietako Hermandadeek hala eskatuta, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko dorre-etxeak lurreratzeko agindua eman zuen Gaztelako Erregek 1456. urtean. Urteak joan urteak etorri, asko eta asko birreraiki egin ziren lehengo zimentarriak oinarritzat hartuz eta, seguraski, antzinako egiturei jarraituz, Kantabria aldeko Nafarroan daudenekin konparatzen baldin baditugu: Arizkungo Ursua,

Arraiozko Jauregizar, Irurita, Donamaria, Lesaka eta Laburdiko Senpere eta Urtubi dorreak (azkenengo honen parte zaharra, zeren XVIII. mendean eraldatu egin bait zuten).

Gipuzkoa eta Bizkaian berdin jokatu zen. Hona hemen adibide batzuk: Berastegikoa, Elgetako Jaolatza, Oñatiko Zumeltzegi, Azkoitiko Balda, Mutrikuko Berriatua eta abar... Jaureerrian, Berriatuko Arantzibia, Abadiñoko Muntxaraz, Muxikako Ugarte, Gernikako Urdaibay, Erandioko Martiartu, Zamudio, Getxo, Sestao eta abar. Harresidunak: Fontetxa, Barona de Villanañe, Mendoza eta Muñatones.

Nafarroan ugariagoak dira patiodun «cabo-armeria» etxeak. Baina guztien artean honako hauek dira nabarmenenak, hau da, Marzillakoa eta Arazurikoa, jauregi erakoak bait dira.

Hiri batzuk gordetzen dituzte oraindik jauregi erako etxeak, adibidez, Zarauzko Torre-Luzea.

Arkitektura zibilaren eremu barruan goren mailakoa, Olibetako Jauregi-Gaztelua da inolako zalantzarik gabe; 1406. urtean eman zitzaion hasera obra honi Errege Karlos «el Noble» izenekoaren agintaritzapean eta ez dago Euskal Herrian honekin konparagarri denik, ez Bidatzeko Agramount (jausita dago) eta ez Arazurikoa ere. Frantses estilokoa da eta elemento mudejarrez itsatsiriko apaingarriak ditu.

Erresuma zaharreko horma-margorik gehienak Nafarroako Museoa bildurik daude, horien artean, nagusienak, Artaiz, Artaona, Olite, Galipentzu eta Olletakoak direla. Baita beste batzuk ere interesgarriak direnak, adibidez, Gazte eta Urrialdokoak Araban.

Zurean egindako margoak askosaz ere ugariagoak dira. Guztien gainetik nabarmetzen direnak, Tuterako eta Iruñako katedraletakoak dira. Araban, gogoan hartu beharrekoak honako hauek dira: Yurre eta Hueto Abajoko triptikoak. Iruña, Baiona, Gasteiz eta Bilboko Museoetan daude gordeta arte-balioa duten irudi eta zurean egindako margoak.

## BERPIZKUNDEA

XVI. mendearan haseran aurrera jarraitzen du oraindik gotiko-aunitzak. Amerika aurkitzeak eta Ifarraldeko itsasoetan makailotegiak topatzeak, ordurarte inoiz ikusi gabeko aberastasuna ekarri zuten euskal itsasertzera eta, ondorioz,

arte-obren garapena ugaltzea noski. Elizak handiagotzen hasi ziren hildakoen lur-emanketak bertan egin ahal izateko, bestalde, ohitura hau indarra hartzen ari zela biletan XIV. mendearen lehenengotatik hasita behintzat, «carta-puebla» batzuk aditzera ematen digutenaren arabera. Honen eraginez, hilarri biribil edo diskoide erako estelak desagertzen doaz Bizkaian eta Gipuzkoan eta horien ordezkariak *argizaiolek* hartzen dute indarra, beroien inguruan hildakoen alde otoi ez egin ahal izateko. Baina nabarmenena zera da, hau da, aldi berean koru-musika eta organoa indarra hartzen doazela eta, euskal hargin-maisuen gaitasunari esker, tipologia berri bat eman zitzaion elizei, hots, saloi-eliza edo zutabezko eliza. Dударik gabe, hauxe da euskaldunek arte-arloari eskaini dioten alderik garrantzizkoena.

Ekonomia-oparotasunaren baloraketa egiterakoan, ezin ditzakegu alde batera utzi, ez taldeen arteko gudateak barretzea eta ez guztien aitonensemetasuna aitortzen zuten foruak ere Gaztelako Enrike IV.-aren garaitik hasita; horietaz aparte, elizan, hildakoei lur-emateak, behar berriak sortu zituen.

Zutabezko edo saloi-eliza hauek, berezitasun arkitektoniko bat dira eta Gipuzkoan eta Bizkaian eraiki ziren gehienbat. Beren sabai gurutzatuak gotiko egituraz eraiki ziren gehienetan eta hortik dator «euskal gotikoa» edo «gotiko bizkaitarra» izena estilo honi ematea; baina ez da beti horrela izaten, Azkoiti eta Azpetiko parrokiaketa sabaiak Berpizkunde estilokoak bait dira.

Beren egiturak, gehienetan, solairu basilikala, hiru habertarte eta poligono erako absida bakarra erdikoan izan ohi ditu; hiru solairuek altuera berdina izaten dute, ez dute arbotanterik eta kanpotik ostiko oso lodiak izan ohi dira euskarri; barnean, eta hauxe da berezitasunik nabariena, zutabe oso garaiak, kapitela klasikoek ia beti; abakoetan edo fusteak abakoaren gain duen luzegunean, hartzen dute oinarri sabaiak. Kruzeriazkoak izaten dira gehienetan, izardunak, ondulaziodun nerbioak edo, guti batzutan, baita ere, arku zapalez eta rektangulo edo obulo erako nerbioz.

Hamabi dira Gipuzkoan zutabezko elizak, doriko estiloko kapitela hornituak edo gehienak kapitela gabekoak. Eibarko San Andres elizak ditu bakarrik korintio estiloko kapitela. Bergarako San Pedro eta Santa Marina elizetakoek doriko estilokoak dituzte; eta bai Zumarraga, Segura, Idiazabal, Tolosa, Erreterri, Irun, Deba, Azkoiti eta Azpetikoek ere. Bizkaian, Bilboko San Bizente, Zamudio, Gautegiz-Arteaga, Aulestiako San Juan (Murelaga), Xemein (Markina) eta Errigoitiako. Plateresko estilodun erretablea du Amoro-

tokoak. Galdakaoko Andra Mariaren deboziozko elizaren burualdea arkitektura estilo honen arabera handiagotu zen. Elorriokoak herrajedun triforioa du eta garai bereko estilodun dorre bakarra. Eta guztien gainetik Gernikakoa, joniko estiloko kapitela dituela. Era honetako elizak oso gutxi dira Araban, Gasteizko San Bizente egitura osoz eta Biasterriko Santa Maria la Real izeneko elizan burualdearen handiketa ezagutzen bait ditugu bakarrik estilo honetakoak. Eta Zintuenigo eta Kaskanteko parrokiak, Nafarroan.

Kanpoaldeak oso sinpleak dira. Renazentista estiloko ateek bakarrik hartzen dituzte apaingarriak. Pinakuloak eta plateresko estiloko zutabeak, enblema eta gruteskoak eraman ohi dituztela, biribil erako arku dobelatuak eta, batzutan, kasetoiez apainduak.

Estilo bereko gaurrengoko elizak ere baditugu, solairu bat bakarra dutela, zutabeak horiei erantsita edo, zutaberi gabe, horien egitekoa, mensulek betetzen dutelarik. Kruzeria gotiko erako edo naiz baida erako bobedak, nerbioak retikula eran daramatzatela eta berpizkunde estiloko kasetoiak osatzen dituztelarik. Argi eta garbi dago mugaz kanpo ere eragina izan zuela estilo honek eta lekuko bat Xaintesko San Bizente parrokiko burualdea da Urruñan (Urrugne) eta ondorioak ikus ditzakegula bertan: Zutabe adosatuak, toskano-estiloko kapitela eta alamijera-erako bobedak, garai hartako Gipuzkoako eliza batzutan bezalaxe. Berpizkunde-estiloko kalostreak, Bizkaiko Ziortza Kolegiata eta Donostiako San Telmoko komentuan ikus ditzakegu, azkenengo hau museotarako erabiltzen dela gaurrengun. Plateresko-estiloko eta gusto handiko kaperak, Gasteizko San Migel eta San Bizente elizetan topatuko ditugu.

Arkitektura zibilean, Oñatiko Unibertsitatea da nabarmendu beharrekoa. Kuadrangulo erako eraikintza, erdian kalostrea duela, galeriak, sarreraren alde batera kaperak eta areto handiak, mudejar-estiloko eragina duten zurasabaia dutela horietako batzuk. Apaindura ugariak fatxada batez ere. 1546. eta 1548. urteren artean eraiki zen, taiuketa eta zuzendaritza Pierre Picart arkitekto frantsesak eroan zuen.

1456. urtean dorre batzuk moztu egin zituzten eta, birrekitzean, zituzten zimentarriak probetxatu, berpizkunde estiloari jarraituz. Kasu hau San Inazio jaio zen Loyolako dorrean gauzatzen da, mudejar-estiloaz jaso zela gotiko-estilodun lehenengo oinarrien gainean. Beste batzuk ojibal-estiloaren azken aldiko joeraren arabera eraiki ziren eta ez beti konopia lineari jarraituz. Ojibal aldi hori XVI. mendeko lehenengo urteetaraino luzatu zen. Estilo honetakoak dira Zarauzko Torre-Luzea eta Segurako Gebara jauregia Gipuz-



koan; Bermeoko Erzilla, Ondarruko Likona eta Izurtzakoa Bizkaian. Beste era batekoak ere aurkituko ditugu, hau da, garaiko joera plastikoei jarraitzen ez dietenak alegia eta arkitektura aurreratuago eta bereziago bat erakartzen dutenak hain zuzen: Zumarragako Legazpi, Zeberioako Santa Cruz eta Orozkoko Aranguren adibidetarako. Mendialdeko base-ri askok dute estilo hau.

Jauregi itxurako etxeetan ere pareko ezberdintasunak aurkitzen ditugu, ez bait da erabat alde batera uzten ojibal-joera. Adibidez: Azpeitiko Basozabal, Zestoako Lili, Berriatuako Arantzibia, Okendoko Ugarte eta abar... BERPIZKUNDE estiloko lehen aldiko klasikotasun handiagoa dute Urberuagako Ubillak Markinan eta Bergarako Ozaetak. Geroago-koak dira Ermuko Lobiano eta Gordexolako Oxirondo. Hiri-etxe estiloko adibide batzuk, hiribilduetako gune zaharretan topatuko ditugu eta laborantza-estiloko eredu gisa Goizuetako etxe batzuk har ditzakegu, adibidez, Urrutiena edo Jaudenea Kantabria hegalerako.

Tipologia, oso ezberdina da Pirineo eskualdean, mendien bi hegaketara, berdintsuak dituztela Zuberoako eraikintzek eta Nafarroako Erronkari, Saraitzu eta Aezkoa ibarretakoek. Oso nabarmengarriak dira noblezia-etxe batzuk, hara nola, Irurin (Trois-Villes), Irisarri, Iholdi eta Armendarizko gazteluak eta Mauleko Maytie d'Andurain izeneko etxandia. Biltzeko Agramonte gaztelua garrantzi handikoa izan zen garai batetan, XI. mendetik datorrela bere jatorria, gero jauregi bikain bilakatu zutela XVI. eta XVII. mendeetan eta 1796.ean, Iraultza zela eta, suak lurreratu zuela. Gaur hondakinak bakarrik ikus ditzakegu.

Penintsulan, herri mailako gaiak ebatzen zituen *Unibertsi-tatea* edo mugatu gabeko kidez osatutako Kontzejuak ordezkatzen duen kidez mugatuzko Kontzejuak indarra hartzarekin batera etorri zen BERPIZKUNDEA. Hori dela eta, udaletxe handiak eraikitzeari ekin zioten.

BERPIZKUNDE-eskulturak, plateresko erako lehenengo al-dian, flamendar eta Borgoñes eragina izan zuen eta, horrela, ez da harrizkoa, Picart, Beugrant, Imberto, Nanteko Maisua, Troas eta beste batzuk, beren aztarnak gure elizetan uztea.

Juan de Ayala Jaunaren tailerra egon zen indarrean Gasteizen, plateresko estiloaz ondo jabetu zela eta kanpotarrekin lehia egiteko gai zela. Calahorrako elizabarrutiarentzako egiten zuen lana Ayalak. Seguraski, berak egindakoa da Markina-Xemeingo parrokiako erretaula, honek 1527.ean margotu eta urreztatu zuela agirian bait dago eta 1543.ean

akuratu egin zuten Zenarruzako Kolegiata egin zezan. Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako beste herri batzutarako ere lan egin zuen eta, bidezkoa da, bere lanik onenak probintzia horretan izatea. Ayalaren garaikide izan zen eta lan nabarmenak egin zituen beste gasteiztar bat, Andres de Mendiguren izan zen. Biak lankide ziren Oñatiko San Migel parrokiako «la Piedad» izeneko erretaula egiten.

Gasteizen izan zituen baita ere bere tailerrak Andres de Araoz Jaunak, Nafarroan bertan ere bere obrak ikus ditzake-gula eta, bereziki, Uxanurin, bertan egin zuela bere obrarik jatorrena 1563. urtean. Honek eta bere seme Joanesek egindakoak dira Eibarko San Andres parrokiako erretaula nagusi-ko lehenengo bi atalak, Gipuzkoako onenetarikoentzat jotzen dela erretaula hori.

Zenarruzako kapera Guiot de Beugrand Jaunak egindakoa da, Irusta Abataren ohorez hainbat obra egin zituela Bizkaian. Beren obren artean onenetarikoentzat jotzen dena, Bilboko San Anton elizako «la Piedad» kaperakoa da. Jaundone Santiago izeneko katedralerako proiektuaren gai izan zen retabloko zati batzuk, irudiak noski, Museo Arkeologikoan daude gordeta. Behar bada, bere doaina gauzatu zuen obrarik onena Portugaleteko elizako erretaula nagusi-koa izan zen, bere anaia Joanen lankidetzan egina hain zu-zen.

XVI. mendearen bigarren berrogeita hamar aldian, romanista eskola delakoa agertzen da. Estilo honetako eskultoretarik nagusiena Azpeitiko Joanes de Antxieta da, Trentoko Kontzilioak emandako gai-kontzeptuak ezartzen lehenengoa izan zela. Astorga eta Briviescan, 1565.ean, Juan de Juni-rekin batera azaltzen da Antxieta. Juan de Juni Jaunak zera esaten du, Antxieta buruz, hilaurrean, hau da: Medina de Riosecan amaitu gabe uzten duen obrari jarrai-pena emateko gaitasuna duen bakarra Antxieta dela alegia eta honela dio bere testamentuan: «Juan de Antxieta ezik, ez dago lan hori egiteko gaitasuna duen pertsona artistarik.»

Antxieta, Gipuzkoan lan egin zuen 1572. urtetik 1575. urterarte, bere lehen jarraitzaileak ere hor biltzen dituela. Gipuzkoan gauzatu zuen lanik onena, Zumaiako San Pedro elizako erretaula nagusia da. 1576. urtean Iruñean jartzen du bere behin-betiko tailerra, eskola sortuz eta bertan egin zutela beren gaiketa-lana honako bere jarraitzaile ospetsu hauek: A. Bengoetxea, P. Gonzalez de San Pedro, M. Ruiz de Zubieta, Lope de Larrea, B. Imberto, D. Bidarte, D. de Luso edo Lussa, J. de Berrueta, Jeronimo Larrea, J. Iriarte eta beste batzuk.

Berak egindakoak dira honako erretaula eder hauek, hau da, Kaseda, Agoitz eta Tafallakoa. Iruñean hil zen 1588. urtean, katedraleko kalostrean eman zioten lurra eta honako idazki hau jarri zuten bertan: «Aquí yace Anchieta, que sus obras no alabó ni las de otros desprecio.»

XVI. mendeko bigarren berrogeita hamarraldian jarri zen aurrerabidean Nafarroa, 1512.ean jasan behar izan zuen inbasioaren ondoren. Tailer ugari sortzen dira: Sangüesa, Lumbier eta Lizarran, Euskal Herrirako eta Euskal Herriz kanporako obrak gauzatu zirela berrietan. Gasteizen, Bilbon eta beste herri batzutan ere egon ziren tailerrak jardunean. Antxietaz aparte honako hauek ere lan egin bait zuten: A. Gaztelu, J. Gazteluzar, Obray, B. Gabadi, D. de Mayora, D. de Segura, Jiménez de Alsasua, M. de Espinal, B. de Arbizu, A. de Zarraga eta beste batzuk. Hauek ez zuten eduki inolako loturarik antxietatar tailerrekin.

Sanguis eskultoreak lan egin zuen bereziki Zuberoan, lehen aipatutakoen eraginik izan ez zuela eta Arbaud de Maytie Jaunaren gidaritzapean. Beste paralelismo bat ere ematen da, herrietan lan egiten zuten irudigileekin. Adibide batzuk emango ditugu: Santa Eulalia (Araba) izeneko Irutabun Donaren ermitan lan egin zuen eskultore-taldea, debruak erasotzen duen haurra aingeruak babesten duela; Halsuko (Halsou) Piedadea edo Salbatoreko Kristoa Jatsun (Jatxou) Lapurdiko lurraldeetan; Soralezeko San Andresko San Isidro bere laiaz (berpizkunde estiloko tailua da, gero egokiketarak erantsi zitzaizkiola); Santa Ana eta Ama Birjina Berangon (Bizkaia).

Berpizkunde-estilodun pinturak ez zuen lortu eskulturak izan zuen hainako garaitasunik. Hala ere, egon ziren margotzaile eta erreztatzaileak, hara nola, Migel de Araoz, Breheville, Elizalte eta beste zenbait, baliozko obrak gauzatu zituztela. Tuteran eta honek eragina duen eskualdera mugatu zen Pedro Dias de Oviedo Jaunak egin zuen obra.

Obra benetan bitxia, Ororbiako maisuak, Olza udalerrian, 1530. urte aldera, egin zuena da. Ondoren, Juan de Bustamante eta Migel de la Torre Jaunak azaltzen dira, biak Lizarrakoak. Nafarroako lurraldearen erdigunean, honako hauek egiten dituzte arte-obrak: Juan de Monzón eta bere ikaslea izan zen Felipe Gil bizkaitarrak, Diego Polo eta beste batzuk, hauen artean honakook aipa ditzakegula, Juan de Lumbier eta Paulo Ezchepers; 1589. urtean hil zen hau eta Zaragozan lan egin zuen Rolan Moix flamendarrarekin batera. Biek zurean egiten zituzten margoketa-lanak, horien artean, nabarmenena, Tafallako Agustinas Recoletas lekaimen monastgirako egin zutena izan zela.

XVI. mendearen erdi-aldera, Vázquez izenez ezagutzen zen pintura-eskola egon zen jardunean Bilbon, hemen jaso zuen heziketa Frantzisko de Mendieta Jaunak, «la Jura de los Fueros» kuadroaren egilea eta Bizkaiko Diputazioan gordetzen dela gaur kuadro hori. Donibane-Garaziko Juan Mayorga, 1531.ean jaioa, Jesusen Lagundian sartu zen 1566. urtean eta Brasilerara joan zen misiolari lana egitera eta arte-obrarik kasik utzi ez zuela.

Bertako margolariak egiten dute lan Iruñean. Berandu batetan, Juan de Landa azaltzen da, eraberritutako manierismoz hornitutako obrak gauzatzen dituela. Ikasleak izan zituen eta aunitz obra egin, hauen artean, Eransus, Kaseda eta Sagasetako erretaulak direla nabarmenenak.

Berpizkundeak, oro har, goreneko maila hartu zuen Euskal Herriko arte-historiaren eremu barruan. Eta, bai arkitekturan eta bai eskulturaren ere, barrokoranzko eboluzio-prozesuari jarraitu zioten maisuak egon ziren. Adibideak: Araban eta Gipuzkoan lan egin zuen Bazkardo Jauna, eredu bide den obra egin zuela Irungo erretaula nagusian. Aloitiz Bizkaian eta Biniés Nafarroan. Gasteizko Ayala eta Araoztarren tailerrek ere, estilo-joera berriei jarraitu zieten.

## BARROKOA

Arkitektura mota honetan, haseran, Migel de Aranburu izan zen nabarmenena, frantzizkotarra bera, Zerainen (Gipuzkoa) jaioa eta Herrera-estiloa sartu zuena hain zuzen. Eite hau dute berak taiutu zituen eraikintzek. Tolosako San Frantzisko eta Erretereriko Trinitate komentuak eta bai hiri honetako Udaletxeak ere.

Karmeldarrek sartu zuten, Avilako Santa Teresaren Etxeko estiloa alegia, Markina (Bizkaia) eta Lazkaoko (Gipuzkoa) komentuetan. Beneditarrek dira azkenengo aipatu dugun komentu honen jabe gaureraino, baina karmeldarrek eraikia zen.

Beste eraikintza nabarmen bat, herrera-estilokoa gainera, Bilboko Jaundone Juanes (Santos Juanes) izena duen elizarena da. Jesuitak izan ziren honen jabe garai batetan. Bere kalostre eta erantsitako tegietan dago kokatua Bizkaiko Arkeologia eta Etnografia Museoa.

XVII. mendeko arkitekturak gure artean duen nabardurarik propioena eta bereziena, galeriadun elizetan aurkitzen dugu zalantzarik gabe, Lapurdin eta Behe-Nafarroan hain zuzen. Handiagoketa eta ekonomia-beharrak zirela eta, XVI.

mendean izan zuen hasera, apaizgoarengan eta herrian arrakasta izugarria izan zuela eta elizetako barne-hormetan mailadiak egiteari ekin ziotela. Berehala hedatu zen joera hau, eta, XV. eta XVI. mendeetan eraiki ziren elizetan, galeria bitxi hauek sartu zituzten gaur berezitasun nabari bat ematen dietela alde horretako elizei. Bi edo hiru oin izaten ditu mailadiak, batzutan lau ere bai, nabearen zoruan oinarria eman, zutabe zuzenez eta mailak hormari erantsiz eta gapirioz baliatuz barnealdea estaltzen dutela bi hormeak eta elizaren atzekoaldea hartzen dutelarik. Egiturak zurezkoak dira, trebetasunez elkar lotuta, erretaula eta herri-arkitekturaren zurajeko teknikak erabiltzen zituzten sistemez baliatzen direla horretarako eta, batzutan, tentsio handiei eusten dietela oreka ausardiz loturik. Galeria hauetako asko eta askok apaingarri-dun tailuak, daramatzate garai hartan hemengo altzarietan erabiltzen zirenen antzekoak hain zuzen.

Galeriadun elizak hain ugariak direnez, batzuk bakarrik aipatuko ditugu adibide gisa: Donibane-Lohitzune, Ziburu, Hendaia, Kanbo, Bidarte, Ainhoa, Orzaize, Ezpeleta eta abar...

XVI. mendean Bizkaian eta Gipuzkoan eraikitzen hasi ziren udaletxe handi eta bikainak, XVII. eta XVIII. mendeetan ugaltzen dira, eraikitzaileek Euskal Herrian erabili ohi zituzten estilo ezberdinak azaltzen direla berrietan. Badaude egon, Herrerenaren estiloak duen zorrotzasunez jantzitakoak ere. Barrokoaren azkenaldikoak direnetan, predikamendua-ren pregonero direnak ere badaude K. de Etxegarai Jaunak esan ohi zuen bezala, txurrigerismoz josita daudenak, Ibero eta ospe handiko beste arkitekto batzuren eraginez. Estilo bera erabiliz egin ziren izen handiko hainbat pertsonalitateen jauregi-etxeak, Kortean sarrera lortu zutenak, dirudun merkatarienak eta lehenengo «indianoenak» alegia.

Baserri eta hiri-nukleoen arkitektura bera ere, aberatsa eta era askotakoa da. Eraikitzaileen portaera, klimaren eta toki bakoitzean eskuragarri ziren lehengaien pean dago, izan ere, lehengaien garraioa eragozpen handi bat bait zen garai hartan.

Lehen esan dugun bezala, manieristen ondoren, irudigile ugari azaldu ziren hainbat eta hainbat obra gure herrietako elizetan egin zituztela eta hain erosoak ez ziren lekuetan beren tailerrak zituztela, adibidez, Aulestian, Martin de Basabe irudigileak izen handia lortu zuela hemen eta nekazal-elizetarako hainbat erretaula taitu zituela.

Juan de Menak, Bilboko San Nikolas eliza bikaindu zuen espresionismo estilodun hainbat eskultura bikainez. Arte-gile honen beraren lanak topa ditzakegu, Bizkaiko eta Gipuzkoako geografian zehar sakabanatuta.

Eragin sakona izan zuen eskultorea Gregorio Fernandez izan zen, Espainako eskultoreen artean izenik handienekoa, Barroko garaian. Arantzazuko Santutegirako eta Lekaimo Frantziskotarren Isasiko Komenturako egin zituen erretaulak suak galdu zituen gerrate karlista eta azken gudatean. Fernandezek gauzatutakoak dira Gasteizko San Migel eta San Antonioko (Frantziskotar rekoletak) erretaulak. Konde de la Vizaña Jaunak dioenaren arabera, berea da baita ere Zegamako parrokiako erretaula nagusia, hiru mailakoa, bere eskultura eta guzti. Izan zituen ikasle langileen artean eta bere lanetan asko lagundu ziona Juan Francisco de Hibarne izan zen, bere merezimendu eta jatoriasunagatik bere alaba Damiana eman ziola ezkon zedin. Baina bere estiloaren eragina, erabatekoa izan zen Gasteizen eta Errioxan lan egin zuten Jose de Angulo, Pedro de Ayala eta Diego Jimenez II. arengan, axalez begiratuta berdinak direla esan daitekeela. Jimenez II. ak hainbat lan egin zituen Arabako Errioxan Juan Bazcardo eta Pedro Jimenezen lankidetzaz, azkenengo hau Bianan jaioa eta Valladoliden Gregorio Fernandez Jaunaren tailerretan lan egin zuena hain zuzen.

Bestaldeko Euskal Herrian Martin de Bidatxe Jaunaren tailerra egon zen jardunean, obra ospetsuak gauzatu zituela. Bere lanen lekuko bat, behar bada onena, Donibane-Lohizuneko elizako erretaula nagusia da, 1670. urtean egin-dakoa.

Murillo eta Canoren pintura-lanak daude euskal hiriburu batzutan. Lehenengoarekin, Azkoitiko Iriartek egin zuen lan, paisaiak oso ongi margotzen zituela. Baina Euskal Herrian bertan ez dugu ezer garrantzikorik topatzen. Nafarroan kalitate hobea dute Juan de Landa Jaunaren jarraitzaileen lanek. Goi-mailaz nabarmentzen dena Kaskanteko Andres Urzainki da (1604-1672), bere arte-bizitza osoa Zaragozan egin zuela eta bere hiru semeak margolaritzarako bertan hezi zituela.

## NEOKLASIKOA

Beasaingo Carreratarrak izen handiko arkitektoak izan ziren. Aita eta semeak, hainbat lan utzi zituzten bai Gipuzkoan eta bai Bizkaian ere. Oñatiko San Migel elizan, aitak ataria egin zuen eta semeak dorrea. Eskoriatza, Aretxabaleta, Legazpi, San Pedro Pasaia, Zaldibi, Gordexola eta abar.

Semeak gauzatu zituenetan nabarietak honako hauek dira, hau da, Tolosako parrokiko fatxada, Arrasateko Udaletxea eta Urduñako Aduana.

Azpeitiko Iberotarrek probintzia barruan egin zuten lan batipat. Loyolako kupula, Fontana italiarrak egindako taiuketaren arabera, gaitasun handiz egin izanak, izen handia eman zion aitari. Hargin asko gaitu ziren bertan bere gidaritzapean, horien artean bere semea. Aita eta semeak, Elgoibarko elizari eman zioten amaiera Mendaroko Longa arkitektoak eraturako planoen arabera. Andoingo parrokia jaso zuten eta Hondarribiako eta Usurbilgo elizetako dorreak ere bai beste batzuren artean. Semeak hartu zuen Azpeitiko elizako portadaren ardura, Ventura Rodríguez Jaunak eratu zuela taiuketa.

Longatarrek, aita-semeak, azken-barrokotik neoklasikoko transizio garaian egin zuten lan. Aitak gidatu zuen Markinako Mugartegi izeneko jauregi-etxea. Semeak, Aguraingo Klarisen komentua eta Portugaleteko parrokiko dorrea.

Arabako Olagibeldarrek, neoklasiko landuago bat garatu zuten eta, eraikintza erlijioso eta zibil egiteaz aparte, hirigintza taiuketak ere garatu zituztela. Justo Antonio de Olagibel Jaunak (1752-1818) Gasteizko Plaza Berria eratu zuen. Arkitekto hau izan zen Ilustrazioko ideia aurrerakoien bulzagile nagusienetarikoa bat.

Baina bene-benetako eragina izan zuena Olagibeldarrekin batera, Aragoiko Silvestre Perez Jauna izan zen, afrantzesatua zela eta, atzerritik honeratzean, lehenengo urteak Gipuzkoan eta Bizkaian egin zituela eta Blondelek ereindako ideia Vitrubioaren erakoak hedatu zituela. Zentzu historizista hori Donostiako Udaletxean aurkitu dezakegu eta bai Konstituzio Plazan ere, inguruko etxeekin Pedro Manuel Ugartemendia Jaunak jarraipena emango ziola. Silvestre Jaunaren gidaritzapean egin zen, baita ere, Bilboko zazpi kaleen luzapena Bilboko Ribera etxeak eta Plaza Berrirainokoa. Eta bai Mutriku eta Bermeoko parrokia ere. Frantzizkotarren Tolosako komentua eta herriko parrokiko retablo nagusia, Bilboko Ospitalea eta Gasteizko Antzokia.

Valdivielsotarrekin egiten du aurrera eskulturak Araban, Maurizio Damian zeritzanak hasera eman ziola, «El Santero de Payueta» izenekoak hain zuzen. Hauekin batera, Morazatarrek jardun zuten.

Bergarako Jauregitarrak, arkitekto eta erretaulen egituragiek, hainbat retablo egin zituzten Gipuzkoan, Araban eta Nafarroan. Hauen lankide izan ziren Eibarko Mendizabal

deiturazko eskultoreak, gazteenak, Juan Bautista izenekoak, Valdivielsotarrekin lana egin zuela Araban.

Aldi berean, pintura-lana ahula da. Gasteizko tailerretan lan egin zuten margolari eta erretratzaile ospetsuenen artean, Agirretarrak, Bascotarrak eta Jose Lopez de la Torre aipatuko nituzke.

## XIX. MENDEERDITIK AURRERA

Industrializaketak indar handia hartzen dueneko garaian gaude, romantiko-aldian, oso-osoan. Bilboko ensantxearen proiektuari Amado de Lázaro Jaunak eman zion hasera 1861. Urtean, Severino Atxukarro Jaunak burutu zuela Alzola eta Hoffmeyer injineriak lagun zituela. Orueta zen udal-arkitektoa. «Neos» garaia da, estiloek hainbat era ezberdin hartzen dituzte eta modernismoak ez du lortzen Catalunyan zuen indarririk. Neorenazentista estiloko eraikintza zibilak eta neogotiko estiloko erlijiozkoekin batera, euskal-neo estiloa dator txaletak egiten erabili zen nolabaiteko arrakastaz. Hitz gutxitan esateko, mota askotako arkitektura eta nortasunik gabekoa.

Regulartasun bati jarraitu zitzaion Bilboko Gran Via egite-rakoan eta Donostiako Amara-aldea urbanizatzerakoan. Baionan ere eraiki ziren antzeko etxeak. Honek ez du esan nahi noski ez zela egon arkitekto onik eta etxe monumentalak eraiki ez zirenik, alderantziz, hor ditugu Bizkaiko eta Gipuzkoako Dipurazioak eta Bilboko Arriaga Antzokia.

Nemesio Mogorvejo eta Quintin de Torre Jaunekin hasten da euskultura-mugimendu bat realista-romantiko plastika-joerari jarraituz Auguste Rodinen antzera, irudiak simbolismoz eta espresibitatez hornituta egiten direla. Nemesio gazte zela hil zen eta bigarrenak, lehenengo pausoak alde batera utzi eta ohitura eta gizarte-gaiei heltzen die, baina, hala ere, berpizkunde kutsuko irudiak gauzatzen dituelarik. Beste batzuk, adibidez, Leon Barrenetxea, Orduna, Beobide, Elgezua eta Diaz Bueno Jaunek antzeko forma eta langaiei jarraitzen diete edertasuna zainduz.

Une batetik bestera, pinturak garrantzi handia hartzen du Euskal Herrian. Sekula ikusi gabeko fenomeno gure historian. Parisko joerak sartu ziren Antonio Maria de Lekuona Jaunak Bilbon zuen eskolan. Bere lagunek, Ginea eta Giart Jaunek hain zuzen, gartasun azkengabez lantzen dituzte argi berria eta koloreen bizitasuna beren oihaletan. Eta, gainera, horien artean, mantxazko teknika berriz kuadroak jartzen dituen hain zuzen, hau da, Darío de Regoyos Jauna,

jaiotzaz asturiatarra eta aukeraz euskalduna. Edo, hobeto esan, bere gogoz hemengo egin zena. Hauek lortzen dute San Fernando Eskolarako beka zutenek gero Parisko Eskolan sartzeko beste beka bat izan zezatela. Larroke, Losada Artea, Durrio, Etxebarria, Tellaetxe, Zuloaga eta beste batzuk berehala eman zioten beren adostasuna mugimendu honi eta, gero, Euskal Eskola sortuko dute, 98-ko belaunaldiko Zuloaga ere bertako kide eginaz; honek ez zituen utziko alde batera Espainiako pintura klasikoaren erak, guztiek errespetatuko zuten, baina inork ez zuen imitatuko. Pako Durrio gutxitan etorri zen hona, baina gertakari hau oso garrantzi handikoa izan zen gazteentzako, Parisera joaten zirenean han bait zeukaten «Enbaxadore» laguntzaile bat bertako harremanak gidatzeko eta goreneko mailan gainera.

Bi modu bereiztu behar dira Eskola honetan, hots, margotzeko modua eta margoketaren motiboa. Impresionistengan gertatzen den bazala, orokorki berdintsuak dira, baina bakoitzak bere nortasuna du bere gusto eta izatemoduaren arabera. Hiru une bereiztu behar dira Eskola honen egitebidean. Hasera, impresionista da, Regoyos, Ginea eta Guiart maisu direla, hau da, teknika eta kolorea, argia eta espazioa eta eguratsa jasotzea Turner-en antzera. Berehala azaltzen dira, jarraitzaileak, postimpresionistak hain zuzen, hau da, Etxebarria, Arteta, Olasagasti, eta Vazquez Díaz ere horiekin elkartzen da joera berriei dagozkienetan eta Bidasoa ibaiaren ertzean denboraldi luzeak egiten dituela. Tellaetxe ere mugimendukide izan zen. Zubiaurre anaiek, beren joera pertsonalez izan bazen ere, bultzatu egiten dute mugimendua eta Ignazio Zuloaga Jaunak ere bai, txunditasun handia sortzen ziela baina ez diotela jarraitzen. Ramiro de Maeztu Jauna, giroan sartzen da, aportazio modernista egiten duela eta poliki-poliki postimpresionismoruntz joko du. Honek beste hirugarren belaunaldi bat ekarriko du, maisuak, Aranoa, Amárika, Uzelay, Urrutia eta Martínez Ortiz de Zarate izan zirela. Eta 1916. urtean eratu zen Euskal Artisten Elkarteak eskani zuen laguntzari esker, joera berri horrek batu egiten ditu artistak eta indarra hartzen du Arte-Ederrei buruzko Museo bikiain bat garatzen dela Bilbon margotzaile horien lanak bildu ahal izateko bertan. Zerrenda luze honetan Franzisko Iturrino Jauna ere sartu behar da, Matissen lagun mina izan zena, honekin batera *fauvismoa* sortarazten lankide izan zena eta Penintsulara korrante berri hori ekarri zuena hain zuzen. Baina, hortan, ez da baztertu behar Juan Etxebarria Jauna.

Arrue anaiak: Kostunbrista eta erretratista argia zen Alberto buru zutela, hiperrealismo eta *Naïf* joerak bereganatu zituen Jose lankide zela Brueghel-en gizarte-kitikari jarrai-

tuz, eta Rikardo eta Ramiro ez ziren hain trebeak izan kolore-indarra falta zitzaielako beren lanei; Zubiaurre anaiek ordea, antzeko tematika erabiliz, kolore bikainez jaxten zizuten beren lanak. Rikardo Baroja Jaunak, bere lanek gorabeherak izan bazituzten ere eta argiz urriak baziren ere, bazekien efektuak lortzen eta beladurak zaintzen. Aszensio Martiarena Jaunaren maisutzak hedatu zuen postimpresionismoa Gipuzkoan.

Bilbon sortzen den mugimendu horren gidari Aurelio Arteta Jauna izan zen, Cézannek konposizio eta argi-alternantziari buruz zituen ideiak ongi probetxatzen dituela, muralan Puvis de Chevennes-i jarraitzen diola eta pertsonen egitura, agian, Berpizkundeko florentziarren kutsutikakoa duela esan daiteke. Bere goreneko mailako lanak Madrilgo Banco de Bilbaoko rotondako freskoak dira, Euskal Herriari buruzko alegoriak sartzen dituela beroietan eta Logroñoeko Seminariokoak mendebaldeko espiritualitate-kutsua dutela.

Mende honetako lehenengo berrogeita hamarraldian eman zen pintura mugimenduaren onerako, jakin badakigu ez ditugula izan ziren guztiak aipatzen eta horren ardura bizkarreratzen dugu. Ezin ditzakegu guztiak aipatu, baina hona hemen batzuk: Ziga, E. Zubiri, Basiano Nafarroan; Bienabe-Artia, Montes Iturrioz, Cabanas Erauzkin eta Balenziaga Gipuzkoan eta bai beste batzuk ere, hara nola, Barrueta, Ortiz de Urbina, Uranga eta abar...

Pintura-artearen garapenerako giro egoki bat sortu zuten denen artean, ordurarte gure herrian ezagutu ez zen bezalako, aurrerakoia, gerrate zibilean hil zen Nikolas Lekuona Jaunak aditzera eman zuen bezala. 36-ko gudate horrek aurrerabidea moztu egin zuen. Euskal Artisten Elkarte desageratuz eta gehienek atzerrira joan beharra izan zuten eta horiekin batera animatzaile gartsua eta kritikari zorrotza izan zen Gutierrez Abascal Jauna, «Juan de la Encina» goitizenez ezaguna zena.

Diktaturak ekarri zuen zapalkuntzatik eta kultura-hondamenditik, poliki-poliki, hazi zaharraren uzta berria loratuz etorri zen eta honen muina 1960.eko Manifestoa da. Idazki hori izenpetu zutenak honako hauek izan ziren: Amable Arias, Nestor Basterretxea, Rafael Ruiz Balerdi, José Antonio Sistiaga eta Jose Luis Zumeta pintoreen izenean; eta, eskultoreen izenean, Eduardo Txillida, Remigio Mendiburu eta Jorge Oteiza. Euskal Eskola proiektu handi baten aldekoak ziren eta honako hau zioten beste askoren artean: «...ez dugu buru-eskema txiro bat erabili nahi, gure herriaren une historiko hau kanporatzeko gai den edozein estetikari posible onartzen bait dugu eskema honen barruan.» Gipuzkoa

eta Bizkaia hartzen zituen eta Araba eta Nafarroa sartunahi asmoak zituzten. Ohi denez, manifestoak ez dira izaten biderik egokienak plastika-eremuaren berrikuntzarako eta are gutxiago garai hartan. Eragina izan zuen, baina, bereziki politikarien artean eta, ondorioz, kanpo eta barne mailako oztopoak etorri ziren.

Ez dago ukatzerik mundu-mailako izena lortu dutela jaso dituzten sariak kontutan hartzen baldin badira. Guztien gaitetik Oteiza jarri behar da, Gipuzkoako artista gazteen saria lortu zuela 1931. urtean eta Sarriegi eta Balenziagaren buru aipagarriak egin zituela 1934.ean. 1951.ean ohorezko diploma Milanen eta 1957.ean Sao Pauloko Binelaren sari handia. Ahalegin ugari burutu ondoren eta hainbat eta hainbat eragozpen gainditu, noizbait, lortu zuen apostoluen frisoa Arantzazuko Santutegian jartzea; Malevitch moduloak eta espazio husketa garatu ondoren kaxa metafisiko eta harrispil-zirkuloraino heltzen da. Bestalde, Txillidaren espazioek, erabilkera ezinobe bat hartzen dute kasu bakoitzean, oparoa, ezberdina eta burdin-lanak direla onenak; espazio horiek lortzeko, zuraz, harriz, hormigoiz eta burdinaz baliatzen da. Jaso dituen hainbat eta hainbat sarik, bere lana eta izen handia sendesten dituzte. Donostiako Haize orrazia eta Gasteizko Foru-Plaza dira bere balio neurtezinen lekuko.

Aldi honetako eskultoreek, lan hobeak egin dituzte eta gure herriko hainbat plazatan Oteiza, Txillida, Basterretxea, Mendiburu eta Larrearen obrak ikus genitzake. Eta azkenaldi honetan, pintura-mugimendu itxaropenkor bat nabarienezake 60.eko idazkigileen ildoari jarraituz, horien artean, Ibarrola, Amezttoy, Ortiz de Elgea eta garaiko beste batzuk sartu behar direla eta gertuenekoa Juan Luis Goenaga Jauna belaunaldi berrien eta geroaren promesa diren gazteen lilurabide dela.

Lan honi amaiera emateko museo publiko nagusienak aipatuko ditut: Denen aurretik, Baionako Bonnat Museoa, Klasikoen altxor aberatsa duela eta aurreragokoen taulak ere bai: Dureró, Rafael, Ingres, Van Dick, Rubens, Teniers, Hals, Rembrandt, Piero de la Francesca, Tiepolo, Greco,

Goya, Murillo, Ribera, Corot, David, Courbet, Delacroix, Fragonard, Gericault, Heim eta abar... Impresionista batzurenak ere bai.

Bilboko Arteder Museoa, antzinakoen lanez aparte Euskal Pintura Eskolako euskal impresionisten eta gure aldiko eskultoreen bildumarik bikainena bertan dagoela bilduta. Cézanne eta Gauguinen lanak eta gure aldiko artearen lekuko bikain bat.

Arabako Probintzia-Museoa Gasteizen, antzinakoen lanez aparte, triptiko flamendarrak, irudiak eta Españako eskolako pintura-lanak, Arabako impresionisten lekuko ederrak, Fernando de Améarica gasteiztarraren hamaika artelan eta Euskal Herriko bildumarik hoberena gure aldiko arteari dagozkionetan.

Nafarroako Museoa, Nafarroako lurraldeko arkeologia-piezarik bikainenak ikus ditzakegula bertan, Ertaroko pintura eta euskultura, berpizkunde eta barroko estilokoak eta mende honen lehenengo aldiko pintore ospetsuen obrak ere bai, nafarrenak batipat.

Donostiako San Telmo Museoa, arkeologia-althor ez hain aberatsa, etnografiari buruzko materiale ugaria eta garai ezberdinetako pintura eta euskultura gordetzen deneko hainbat areto antzinakoetatik gaurkoetaraino, aunitz estilotako eta garaietako lekukoak ikus genitzake bertan.

Elizbarruti Museoa, Iruñeako katedralean, irudiz, pinturaz eta orfebreria-lanez hornitua.

Bizkaiko Arkeologia eta Etnografia Museoa, dagokion lan-althorraz gainera, irudi eta keramika lanak gordetzen dira bertan.

Arabako Arkeologia Museoa, Burdin Aroko eta erromatarren garaikoak batipat ikus daitezkeela bertan.

Baionako Euskal Museoa, etnografia eta arkeografiari buruzkoa.